

Beste amets horiek



Mundu guztiak ditu ametsak, baina geroz eta urrunago bizi gara mundu onirikotik. Ametsak gogoratzeko, idazteko, haien bilduma egiteko, kontatzeko, partekatzeko, grabatzeko, argitaratzeko eta marrazteko moduak bilatuko ditugu. Ametsak ezagutza-eremu gisa baloratuko ditugu, bizitako denbora deszifratzeko eta harengana hurbiltzeko aukera emango digun bizitzaren zati gisa.

Helburuak

- Txaro Fontalbaren obrara eta sorkuntza- eta ikerketa-prozesuetara hurbiltzea, eta Sueñario proiektura ere bai.
- Norberaren ametsetara ohitzen eta haietatik hurbilago egoten ikastea.
- Ametsak zertarako balio diguten eta giza eboluzioan izan duten funtzioa aztertzea eta hausnartzea.
- Prozesuan zehar, ametsak lehengai gisa erabiltzen dituzten sorkuntza-trebetasunak garatzea.

Aipamenak

Sueñario: Txaro Fontalbaren proiektua, Nafarroako Museoaren 9 eguzki zikloan aurkeztua. 2021eko uda

<https://txarofontalba.com/project-type/suenario/>

Sidarta Ribeiroren TEDx konferentzia. Aurreitzirik gabeko pentsamolde irekia daukan neurozientzialaria eta "El oráculo de la noche: Historia y ciencia de los sueños" liburuaren egilea

<https://www.youtube.com/watch?v=W5VoEyPobrK&list=PLOAdIfMtPXWWl9w7-FrgDPmRFOGstJU6B&index=3>

Sidarta Ribeiroren "El oráculo de la noche" liburuaren pasarte bat, non narratiba eta zientzia oniriko berria batera dauden.

<https://www.zendalibros.com/el-oraculo-de-la-noche-historia-y-ciencia-de-los-suenos-de-sidarta-ribeiro/>

Robert Stickgolden TEDx konferentzia. Ametsak eta ametsen eta ikaskuntzaren arteko harremana ikertzen ditu.

<https://www.youtube.com/watch?v=WmRGUnNj3c&list=PLOAdIfMtPXWWl9w7-FrgDPmRFOGstJU6B&index=35&t=54s>

Proposamenaren garapena

Aurkezpena

1. Amets egitea eta oroimena. Amets bat kontatzeak ahalegin handia eskatzen du amestutako substantziarekiko introspektzioaren, oroitzapenaren eta zintzotasunaren aldetik. Ametsak idaztea eta kontatzea berreskuratzelana da.
2. Amets egitea lehengai. Lehengai horrekin gauzak egiteko moduak bilatuko ditugu: idazketa, irakurketa, marrazketa, grabazioa, abestiak, rapa edo komikia.
3. Sortzeko lo egin. Ametsak sortzen dituen egiazkotasuna. Ametsak nahigabeko sorkuntza-ekintza gisa. Ametsak beren izaera narratiboa dute, olerkiek, kontakizunek edo beste adierazpen literarioek duten bezala.
4. Besteekin amets egitea, besteentzat amets egitea. Ametsak beste batzuei kontatzen eta beste batzuekin partekatzen diren kontakizun gisa.
5. Guztiok bizi ditugun edo guztiok partekatzen ditugun une historiko eta sozialekin lotzen al dira amets batzuk?
6. Zerk kentzen digu loa?
7. Animaliek amets egiten dute?

Esperimentazioa / Sorkuntza / Ikerketa

1. "Gaueko koaderno" bat egingo dugu. Norberaren ametsak harrapatu, eta bilduma bat

egingo dugu. Ametsak egunero idazteko ohitura hartuko dugu denbora-tarte batean (asteak edo hilabeteak izan daitezke).

2. Ametsen harrapaketa trebatuko gara. Ametsak gogoratzeko moduak praktikan jarriko ditugu.
3. Xehetasunak, sekuentziak eta idazketa gogoan edukitzea praktikatuko dugu. Batzuetan, elementu giltzarriak dira sotilenak. Zer uste dugu dagoela gure ametsetan ezkutatuta?
4. Esnatu bezain laster, ametsak mundu onirikotik erauziko ditugu, aldaketarik egin eta ezer gehitu gabe.
5. Zer ideia eta beste irudi lotzen dugu gure ametsekin? Zer beste soinu lotzen dugu gure ametsekin? Zerrenda bat egingo dugu. Ez datza ametsa interpretatzean edo zentzu itxia ematean. Egoera puruan utziko dugu ametsa, adierazpen gorenean.
6. Ametsak hautatzeko irizpideak zehaztu edo adostuko ditugu. Amets batzuk beste batzuk baino gehiago gustatzen zaizkigu? Zergatik? Zer elementu ematen digute arreta gehien? Dramatismoa, hedapena, irudiak gogora ekartzea, harridura, emozioak, tabuak.
7. Lan bateratu bat egingo dugu: gure ametsak lehengai gisa erabilia, liburua, fanzinea edo ametsen akordeoia, idatziz edo marrazki bidez.
8. Lo egiteko jarreraren performazio- eta gorputz-dimentsioak aztertuko ditugu. Nola adierazi dira pinturaren historian? Eta zineman?

Ondorioak eta lerro irekiak

1. Aurkezpen bateratua egingo dugu edo guztion artean partekatu.
2. Ametsen buruzko lana ikastetxeko webgunean, blogean edo sare sozialetan argitaratuko dugu.
3. Ametsak biltzeko eta partekatzeko ohitura mantenduko dugu.